

3.gazia FORMA POLITIKO HISTORIKOAK

Atal honetan bidaia historiko batean sartuko gara izan diren FORMA POLITIKO ezberdinak aztertzeko. Hasteko, bi irizpide jarraituko ditugu:

Vallesen Irizpideak:

- 1) Funtzio politikoaren espezializazio maila:

Erakunde bereziak, eragile espezializatuak, prozedura zehaztuak ...

- 2) Indarkeria legitimoaren monopolioaren maila:

Programa, asko ideologikoa (desideratum-a) nolakoa den

Bi hauek dira estatu formen ezaugarri nagusiak



1. TRIBU SISTEMAK EDO GIZARTE AURRE-POLITIKOAK

Aurre-politiko deritze ez baitzegoen erakunde politiko zehatzik. Dena den, Mokoroaren ikuspuntutik, talde batean erabakiak hartze hutsa politikoa da.

Ezaugarriak:

Paleolito garaian kokatzen dira.

- Gizatalde nomadak: 50-250 pertsona bitarteko tribuak, beharren arabera mugitzen zirenak (ez zuten bizileku finkorik)
- Ahaidetasunean oinarritutako loturak: familia lotura oso estuak
- Indarkeria erabili behar izanez gero, talde osoa zen subjektua
- Berdintasuna nagusi zen gizatalde horietan
- Gatazka maila baxua, superbizipena bermatzea baitzen helburu: biziraupena zen xede nagusia

2. HIRIA

(Hiria ≠ Polisa)

Hiriaren fenomenoak nekazaritzaren hedapenarekin batera sortu zen (k.a. 8000-6000 urteetan); bereziki Palestina, Siria, Irak, Turkia eta Nilo, Indus eta Ibai Horiaren arroetan.

Lehen aipatu dugunez tribuak nomadak ziren. Ordea, nekazaritzaren hedapenak sedentarisismoa abiarazi zuen; hots, hiria izan zen sedentarisismoaren hasierako forma politikoa.

- Nekazaritzarekin batera soberakinak helduko dira eta beharrezko suertatuko dira horiek kudeatzeko egiturak: aletegiak, merkaturako azokak (trukea hasi baitzen), santutegiak, jauregi-babeslekuak eta abar eraikiko dira.
- Era berean, soberakin ekonomikoen metaketaren eta banaketaren ondorioz sortutako gatazkak bideratzeko abian jarriko dira hainbat jardura eta prozedura politiko.
- Horren guztiaren ondorioz, pertsona batzuek besteek baino kontrol bitarteko gehiago eskuratuko dute, eta, horrela, gizarte estratifikazioa finkatzeko interesak indartu egingo dira. Hots, gobernatu eta gobernariaren arteko bereizketa sortzen hasiko da.
- Dena den funtzio politiko, ekonomiko eta erlijiosoen mugak ez dira argi bereizten oraindik eta onartuta dago errekurtsodunen mendeko pribatua.


3. POLISA

Hiriaren kasu oso berezia da polisa, eta Atenasen garatu zen.

- Atenasen 250.000 biztanle ziren; horietatik, 40.000 soilik ziren hiritar eskubide politikodun. Hots, emakumezkoak, metekoak (kanpotarrak) eta esklaboak ez ziren *zoon politikon*.

- Atenasen jaiotako eta bertako gurasoak zituzten gizonezkoak soilik ziren hiritarrak, adin jakin batetik gorakoak.
- Horrela, eta tribu sistemarekin alderatuz, hemen jada leialtasun politikoa ez da ahaidetasunean oinarritzen; hiriarekiko harremanean baizik (hiritarra zara haren kudeaketan parte hartzen duzulako). Dena den leinu loturek gizarte kohesioan garrantzia izango dute oraindik.

ATENAS, ERAKUNDEEN ESKEMA:



EKKLESIA:

Hiritarren asanblada, 20 urtetik gorako gizonezko eskubide zibildunek osatutakoa.

- Funtzioak:
 - Legeak idatzi eta onartu
 - Legeak onartu ahal izateko hiritarren quorum bat eskatzen zen (onartzeko gutxiengoa): hiritarren 1/5, 6000 pertsona inguru.
 - Bakea ala gerra erabaki
 - Beste hiru erakundeetako partaideak hautatu (Boulé, herri Auzitegiak eta Magistratuak).

BOULE

“Bostehunen kontseilua”. Urtebeterako zozketaz hautatutako 500 hiritarrez osatua. Asanbladaren batzorde iraunkorra zen, eskumen legegileduna zuena.

- Funtzioak:
 - Ekklesiak aztertu beharreko gaiak prestatu

- Hiriaren finantzak kudeatu

- PHILA:

Bostehunen batzordearen hamarrena, 50 kidek osatutakoa. Eguneroko gaiak lantzen zituzten bertan. Urtea hamar saiotan banatuta zegoen.

- EPISATES:

Philaren presidentea, egunero zozketaz hautatzen zena.

MAGISTRATUAK:

Zozketa edo bozketaren bidez urtebeterako hautatuak. Bi dira magistraturarik garrantzitsuenak:

- ESTRATEGAK:

Gai militarrez arduratzen ziren; hots, armada zuzendu eta antolatzeaz. Gerora, arkonteen funtzioak ere bete zituzten.

- ARKONTEAK:

Funtzio exekutiboa betetzen zuten. Goi klaseetako kideek osatutakoa. Aurreko ondarezko monarkia ereduaz azarna izan zen.

- AREOPAGOA:

Heriotza delituak.

AUZITEGIAK, HELIEA:

6000 hiritarrez osatutakoa, urtebeterako zozketaz aukeratuta. Gizartean sortzen ziren gatazkak kontrolatzeko sistema. Baita arauak betetzen ez zituztenei zigorrak ezartzeko tresna.

4. INPERIOAK

Hiria baino lurralde zabalagoan hedatzen den antolaketa politiko forma. Egituraren erpinean pertsona bat (enperadorea, kalifa, erregeen errege, faraoia, zesar) du, indarkeriaren bitartekoen kontrola duena. Hemen baliatzen diren menerapen tresnak armada eta burokrazia dira.

Bi inperio mota bereiz ditzakegu:

- **LEGAR INPERIOAK:**

Mongoliar inperioa, inperio karolingioa, ...

Konkista izango da inperio hauen ezaugarri nagusia; hots, inperioak babes emango die konkistatutako lurraldeei, mendekotasuna eta legarren truke.

Enperadoreak tokiko agintarien esku uzten du gobernua.

- **INPERIO BUROKRATIKOAK:**

Egipto, Txina, Kalifatoa, Erromatar Inperioa ... oro har, ezaugarri sozial oso ezberdineko kasuak biltzen dira hemen.

Babes-legal harremanetik haratago doan politika proiektua da, burokrazia ardatz duena.

Zentralizazioa, periferiaren uniformetzea eta kolonizazioa izango dira ezaugarri nagusiak. Horretarako guztirako, aparatua politiko-burokratak baliatuko dira: errepide loturak, herri lanak (ureztatze egiturak adibidez), ogasuna eta abar.

5. POLIARKIA FEUDALAK

Europa, Bizantzio, Errusia, Japonia, Ashanti herria ...

POLIARKIA (Askoren gobernua) + FEUDALA (Boterearen egituraketan lurralde zatiketa)

= Ondarezko zenbait gune politiko osaturiko hierarkia

- Botere errekurtsio politiko banaketari dagokionez
 - o Zenbait botere baliabide militar eta ekonomiko guneren arteko laguntza eta babeserako aliantzak (Erresumak, printzerriak, dukerriak eta abar)
- Edo boterearen egituraren lurralde zatiketari dagokionez
 - o Garai hartan ondasuna eta lurra sinonimoak ziren

6. MONARKIA ESTAMENTALAK

Feudalismoetik estatu absoluturantzko urratsa. Hiriaren eta merkataritza jardueraren arrakastaren ondorioz sortutakoa.

- Interesen ordezkatzeko estamentuek ezagutza sozial eta juridikoa izango dute.
- Hiria eta beste botereguneen arteko harremanen ondorioz, aurreko oreka politikoa aldatu egingo.
- Hirietako oligarkiak (burgesek) jaunen aurka egingo dute zenbaitetan; aitzitik, bestetzetan jaun boteretsuenekin (erregearekin) aliatuko dira.
- Erregearen eginkizuna errotik aldatzen da. Jaunetako bat bada ere, aginpide bereziaz janzten da (bitartekari eskumena jasotzen baitu)
- Erregea eta hirien arteko aliantzak nagusitasuna izango du beste botere feudalen aurrean.

Donostiako Forua (adibidea)

En primer lugar me place y doy por fuero que no vayan en hueste ni en cabalgada. Y que los supradichos pobladores sean libres y exentos de todo mal fuero y de toda mala costumbre para siempre. Igualmente doy y concedo que los pobladores de San Sebastián que llegaren por mar o por tierra a San Sebastian, y vinieren a la predicha villa con su mercancía, no den lezda ni allí ni en toda mi tierra. Solamente retengo esto: que si alguno de los pobladores comprase fardos o alguna mercancía en Bayona, y pasase por San Sebastián para vender en otro lugar la predicha mercancía, dé lezda. Pero si vendiese en San Sebastián la predicha mercancía, no dé lezda.

Brusela

Bruselako Grand Place merkatura bideratutako plaza da, ez dago elizarik (beste leku askotan bezala).

Bruselako plazaren eta inguruen banaketaren azalpenean aipagarriak dira gremioak (garrantzitsua: garagardogileen korporazioa).

7. ESTATU ABSOLUTUAK, monarkia absolutua

Estatu modernoa Berpizkunde garaian (XV.mende amaieran) Europan sortzen hasiko den forma politikoa izango da. (Espainiar monarkian 1914n hasiko da nabaritzen, dena den).

Testuinguru hau merkataritzaren hazkundearen ondorioz sortua izan zen. Izan ere, itsasoz zeharkako espedizioen antolaketa eman zen. Horrek finantza eta babes handia exijitzen zuen. Era berean, bolboraren agerpenak ere eragina izan zuen, bereziki ejertzito iraunkorraren sorrera eta militarren indartzean.

Honek antolaketa politikoaren burokratizazio eta zentralizazioa eragingo ditu:

- Ordena juridikoa
- Sistema fiskala
- Sistema administratiboa
- Armadaren antolaketa

Esan bezala MONARKIA izango da ESTATU honen funtsa; hots, estatuaren eta monarkiaren arteko identifikazioa emango da. Horrela, oinarrizko harreman politikoa erregea eta mendekoen (subdito) artean sortutakoa izango da.

- Erregeak emandako pribilegioek definituko dituzte mendekoen jarduerak. Ordea, batzuek soilik izango dute monarkaren pribilegioez gozatzeko aukera. Honekin desagertzen hasiko da harreman feudala eta mailakatzea. Izan ere, subiranotasuna botere politikoak (erregeak) kontrolatuko ditu, eta hiritar zehatz eta hainbat erakunderi kontzesioak emango zaizkie hala.
- Zuzenbidea erregearen borondatearen adierazpena izango da: hots, erregak erabakitzen duenak izango du legearen indarra. Horren ondorioz, estatuaren monopolio juridikoa sortuko da, zeinetan monarkaren nahiak defendatuko diren. Jainkoaren nahia izango da guztiaren oinarrizko argudioa, baina egiten den oro erregearen izenean egingo da.
- Estatu absolutua ekonomiaz ere arduratzen da, bereziki merkataritza trafikoaz. Maila orotan hartuko du ardura hori, eta monopolioak sortuko dira horrela. Adibidetzat dugu *Real Compañía Guipuzcoana*, Caracasen (Venezuela) txokolatearen produkzioaren monopolioa Erregearengandik jaso zuena. Era berean, monarka bera zen prezioak eta soldatak ezartzen zituen.

- Nolabait esatearren, esan genezake monarkari zegokiola funtzio politiko guztien zuzendaritza. Eredu paternalista baten baitan azaltzen da monarka herrialdean: bera izango baita gizartearen ongizate orokorraz arduratuko dena.

Estatu absolutuaren oinarri ideologikoan aipagarriak diren hainbat autore: Machiavelli, Bodin, Hobbes, Leviathan ...

Versailles

8. ESTATU LIBERALA:

OINARRI IDEOLOGIKOAK

Liberalismoaren hiritarraren sorrera

Estatu absolutuaren jardueri mugak ezartzen zaizkio; hots, estatu absolutuaren jardueren kontra azaltzen den programa politiko berria izango da. Burgesiaren (goraka ari den sektorearen) errekurtsio metaketaren eta interesen bat egitearen emaitza.

Prozesu hau garai eta toki ezberdinetan garatu zen: Ingalaterran XVII.mendean abiarazi zen, Frantzia Frantziar Iraultzarekin batera 1789an, AEBn bertako iraultzarekin batera eta Espainian 1870 inguruan.

Autoreei dagokienez Locke, Rousseau, Montesquieu edota Kant aipa ditzakegu:

- Locke:

Liberalismoaren aitzindaritzat jotzen da gaur egun. Honek ez zuen innatismoan (jaiotzeko momentutik) eta determinismoan sinesten; jakinduria gertakizunen arteko erlaziotik zetorrela zioen aitzitik.

Bere pentsamenduak arrazionalismoaren eta mekanizismoaren elementuak ditu.

Jainko sortzaile batengan sinesten du, esanez, gure existentzia bera dela hori frogatzen duena (ezin ei gara ezerezetik sortuak izan).

Lockeren ustetan Jainkoaren asmoak *lege naturalen* bidez soilik ikus daitezke. Hots, erlijioa gauza pribatu eta pertsonaltzat zuen,

- Rousseau:

Filosofo berezia izan zen, haizearen kontra jo eta maiz kritikatu izan zena.

Ilustrazio garaiko baikortasun eta aurrerabide giroan, kritikatu eta gutxietsi egin zituen gizartea, aurrerapena, artea eta zientziak; ondorioztatuz arrazoian oinarritzen ziren horiek, gizakiaren ustelkeria eta gaitz guztien iturri zirela.

Hori dela eta, Erromantizismoaren aitzindaritzat jotzen da; hots, arrazoiaurrean sentimenduen garrantzia azpimarratzen duen korrontea.

Pedagogian lan handia egin bazuen ere politikan egin zituen ekarpen handienak, eta haren ideiek eragin nabarmena izan zuten Frantziako Iraultzan.

- Montesquieu:

Ilustrazio garaiko kronista eta pentsalari politikoa izan zen. Ilustrazioaren mugimenduko filosofo eta saiakeragile garrantzitsuenetakoa. Ospetsua da berak egituratu zuelako botereen banaketaren teoria (gaur egun ere gobernu modernoetan oinarritzat jotzen dena eta mundu osoko konstituzio ugarian ezartzen dena).

Haren pentsamendua ilustrazio frantsesaren izpiritu kritikoaren korrontean sartuta dago. Korronte horren ezaugarriak honakoak dira: tolerantzia erlijiosoa, askatasunaren bilaketa eta zorientasunaren kontzeptu zibikoa.

- Kant:

Ezagutza sintesi prozesua zela zioen, zeinetan adimenak forma eta bizipenek materia ematen duten. Horrela, bi horien batasuna irudimenaren bidez egiten dela ondorioztatu zuen Kantek (irudimena ahalmen sortzailetzat zuen Kantek).

Horrela, arrazoia bizipenetatik ez datozen kontzeptuei aplikatzen ahalegintzerakoan (Jainkoa edo arima, besteak beste) ilusioak sortzen dira, espekulazioak alegia. Horrela, Kantek ukatu egin zuen tradizio metafisikoaren balioa.

Estatu liberalaren teoria. Bi oinarri.

1. Legearen inperioa (absolutismoaren aurkako legea)
2. Gizabanakoaren ezin kenduzko eskubideen onarpena (lege horren onarpena)

Bi oinarri horiek *iusnaturalismoarekin* lotzen dira: iusnaturalismoaren arabera Jainkoak (gure sortzaileak) hainbat eskubide eman dizkigu jaiotzetik. Horrela, zuzenbidearen lege naturalen baitan kokatzen dira bi oinarri horiek eta edozein instituzio politikok babestu beharrekoak izango dira.

Ordea, aginte politikoari dagokionez erabaki edo hautatzea ezinbestekoa izango da:

- Sufragio zentsitarioa izango da: Jabetza maila batetara heltzen denak du soilik sufragio eskubidea. Burgesiaren sistema bat dela esan genezake beraz, elite ekonomiko sozial batek baliatuko duen sistema politikoa baita.

Ez al dago kontraesanik? Azalpena:

Monarkia absolutu batetik (boterea batengan gorpuztu), beste eredu batetara igaro gara. Dena den, subiranoa NORBAITI dagokio.

- Gauzatze horri NAZIOAREkin burutzen dute bereziki eredu frantziarren, XVIII.mendean.
- Gu hiltzean nazioak iraunen du? Bai, horrenbestez, ez gara GU nazioa eratzen dugunak. Nazioa gure gain dagoen ente gisa ulertu behar dugu.
- Horrela, gu ez garen horrek zeren bidez hitz egin behar digu? Nor izango da nazioaren ahotsa?
- Bada, teoriko hauen honakoa planteatzen dute: prestatuen daudenak dira nazioak zer nahiko lukeen jakin eta hari ahotsa emateko prest daudenak.

Hau nola uler liteke iusnaturalismoaren baitan? Eskubidea izan baduzu, baina tresna eta bitartekoak ez dira aintzat hartzen.

Oro har, estatu liberalean, estatu absolutuaren praktikaren aurka “gutxieneko estatuaren asmoa” proposatuko da.

- Maila ideologikoan ulertu behar da, estatu minimo gisa ulertuta.

Ideologia:

- A. Smith: Estatu liberaren (estatu minimoa) funtzioak 3 dira:
 - Jarduera pribatuak burutzen ez dituen herri lanei ekitea
 - Ordena publikoaren bermea, batik bat jabetza eskubidea inork ez dezala urratu
 - Kanpo erasoekiko defentsa (armada)
- Soberatzat jotzen ditu zerbitzu publikoak: osasuna, hezkuntza ...

Estatu liberalaren ezaugarriak:

- Hiritarrak eskubideen subjektu bilakatzen da
- Legeak nazioaren borondatea adieraziko du (borondate orokorra), eta ez monarkarena
- Estatu absolutua, zuzenbide estatu bilakatuko da
- Zuzenbideak estatuaren boterea mugatzen du. Legeak eta zuzenbideak, hiritar eta agintarien jarduna mugatzen du.
- Lege mota honetan botereen banaketa aldarrikatuko da: legegilea, betearazlea eta judiziala. Lortu beharreko egoera hiru botereen arteko oreka litzateke. (Montesquieu).
- Merkatuaren funtzionamendu librearen sustatu behar du.

ESTATU LIBERALAREN PRAKTIKA

Estatu liberalaren praktikan gertatu zena, ordea, ez zen oinarri ideologikoetan finkatutakora doitu.

- Instituzioen arrazionalizazio burokratizazio antolaketa administratibo handia eman zen. Hots, eredu absolutistak sortutako administrazio hori hartzen ari zen ezaugarriak are gehiago markatu ziren.
- Borondate orokorra burgesiaren ordezkari politikoen adierazpenetara mugatu zen
- Burgesiaren boterea areagotu, indartu egin zen
- Horrela, botere politikoa klase nagusien arteko konpromiso baten ondorioa izango da: monarkia absolutua desagertzearekin ez da noblezia desagertzen.
 - o Kontserbadore (mantendutako nobleziatik) eta liberalak (garatutako burgesiatik) bereiziko dira hala.
 - Honen ondorio izango da, adibidez, bi ganberatako sistema. Erresuma batuan parlamentuan bi ganbara daude (Komunena eta Lordena).

Esan bezala, beraz, teoria eta praktika kontraesankorrak dira

Zerbitzu publikoak → politika fiskala
Progresibismoa → birbanatzea

- Betebehar berdinei eskubide berdinak dagozkie. Bozkatze unibertsalerantz.

- Kolonialismoa: Estatu liberala estatu koloniala izango da. Burgesiak behar dituen baliabideak lortzeko beste kolonietara jotzen du. Hots, kapital metaketa defendatzeko fenomenoak izango da kolonialismoa. Horrela, beharrezko izango zaie Estatuei lurralde asko kontrolatzea.

Lehen estatu minimoa aipatu dugu:

Nola izan minimoa adibidez Britainiar inperioan lur mordoa bazegoen?

Ezinezkoa zen minimoa izatea, sekulako aparatua administratiboa (gainera zentralizatua zena) beharrezkoa zen. Horretarako, finantziario beharra sortu zen eta horretarako politika fiskala sortu zen. Honekin, merkatu libretik zerga sistemara igaro gara.

- Era berean kapital metaketa horren ondorioz beste klasearen mobilizazioa sustatuko du. Horrela, langileria bere eskubide politikoak aldarrikatzen hasiko da.

Oinarriekin kontraesanetan dauden praktika horiek estatu liberalaren norabide utopikoaren aurkako praktika gauzatzen du.

PARLAMENTARIZAZIOA:

XIX.mende amaiera eta XX.mende hasiera artean, parlamentarizazio prozesua abiatuko da: hots, gobernuak parlamentuaren konfiantza beharrezko izango du bere jarduna aurrera eraman ahal izateko:

Parlamentarizazioak parlamentuak gobernuak kontrolatzeari egingo dio erreferentzia beraz.

Izan ere, honen aurretik, monarkarena zen gobernuak ez zuen inolako kontrolirik.

Honekin:

- Bozkatze unibertsala garatzen hasiko da (parlamentuaren izaera oligarkikoa galtzen da)
- Klase alderdiak azaldu eta estatuaren esku-hartze handiagoa eskatuko dute hala.
- Ordezkatutasunaren aldaketa. Exekutiboaren **erantzukizuna**.

ESTATU LIBERALAREN KRISIALDIA:

- Politikoa: demokratizazio berria
- Ekonomikoa: 1929ko krisialdia
- Nazioartekoa: IMGren ondoriozkoa

Krisialdiaren osteko estatu motak:

Europar, politikaren prozesuak utzi egingo dio elite sozialek monopolizatutako jarduera izateari. Horrela, masa politikaren garaia abiaraziko da. Hemendik aurrera, beraz, honakoak nabarmenduko dira:

- Estatu Faxistak
- Estatu Sozialistak
- Ongizate estatuak edo zuzenbide estatu sozialak

9. ONGIZATE ESTATUA:

Ongizate estatuan ordezkaten sistema politikoa gailenduko da.

Ongizate estatuaren ezaugarriak:

- Estatuaren parte-hartzearen areagotzea
 - o Bereziki lan merkatuan, arautzeko helburuz
- Gastu eta zerbitzu publikoen garapena (tasen handitzea)
 - o Horrekin gobernuaren zeregina indartu eta paper garrantzitsuagoa izango du (botere exekutiboak, alegia)
- Hori gertatu ahal izateko beharrezko izango da finantza handiago bat. Horrela, sistema fiskal aurrerakoiagoa garatuko da eta gehiago ordaindu behar izango da (zergak areagotuko dira, besteak beste)
 - o Sistema fiskal aurrerakoi horrek aberastasunaren birbanaketa partziala suposatuko du: horrela, gizarte politikak abiaraziko dira (Etxebizitza, Osasungintza, Hezkuntza, Gizarte Segurantzza eta abar)
- Gizarte itunak bideratzeko jarduna burutuko du; hots, gatazkak sistemaren baitan bideratzeko estrategia izango da.
 - o Adibidetzat har dezakegu komunismoaren mehatxupearan klase gatazkak sortutako arazoak konpontze aldera egindako jarduna

- Horrela, ongizate estatuak langileen eskubide formalak ezagutzen ditu, hitzarmen kolektiboen bidez.

Ongizate estatuaren eredu tradizionala:

	Anglosaxoiarra (ahulena)	Europar kontinentala	Europako iparraldekoa (indartsuena)	Europako mediterraneokoa (ahulena)
<i>Finantzaketa</i>	Oinarizko zergak	Langile eta enpresen kotizazioez	Zergak (presio fiskal handia duten herrialdeak dira)	Mistoa
<i>Dinu-laguntzak</i>	Txikiak	Handiak (jubilazioak)	Handiak; baina, zerbitzu fiskala ere handia	Txikiak
<i>Lan-merkatua</i>	Arautu gabea	Ekonkorrak (lehen)prekarioak (orain)	Enplegu publiko tasa handia	Ekonomia ezkutua (kontraturik gabe lan egitea, fakturretan BE Zik ez,...)
<i>Ideologia</i>	Hiritartasuna (diru laguntza jasotzen duenari bere egoeratik ateratzea eskatu)	Korporatibismoa (sindikatu eta abarren papera, sektore bereko langile guztiek eskubide berak)	Berdintasuna	Bizitza autonomia (familiak betetzen du estatuak emater ez duen zerbitzua)
<i>Eraginkortasuna</i>	Txikia	Handia	Handia	Txikia
<i>Berdintasuna</i>	Txikia	Handia	Handia	Txikia
<i>Hornidura</i>	Mistoa (agentzia publikoak eta enpresa pribatuak)	Mistoa (estatuak eta enpresa pribatuak)	Erakunde publikoak	Mistoa (erakunde publikoak eta enpresa pribatuak)

Ongizate estatuaren krisialdia:

Ongizate estatuaren jarduna IIMGren osteko garapen eta hazkunde ekonomikoan oinarritua izan zen (kontsumoaren hazkundera eta enplegu beteko egoera).

Ordea, eredu hori krisialdian murgildu zen hainbat faktoreren ondorioz:

- 1) 1970ko hamarkadako krisialdi ekonomikoa (bereziki petrolioaren krisian oinarritua) eta hark eragindako Keynesianismoaren gainbehera.
- 2) Gastu publikoen hazkundera, zorren handitzea. Ondorioz sistema jasanezin bilakatzen da.

Horrela, ongizate estatuaren eredu kolokan jartze da ikuspegi neoliberaletik. Ikuspegi honek murrizketak eragingo ditu:

- Sektore publikoaren privatizazioa: diru sarrerak erabili eta saldu egiten dira ostean
- Gizarte eta ongizate politiken murrizteka: diru gutxiago bideratuko da zerbitzuotara
- Aurrekontuen orekatzea